Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2014ko abenduaren 11, osteguna — 236 — Jueves, a 11 de diciembre de 2014

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 3 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*635/2014 FORU AGINDUA, abenduaren 3koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ordainketa zatikatuak egiteko prozedurak ezarri, eta ordainketa zatikatuak autolikidatzeko 130 eredua eta ordainketa horiek helbideratzeko 005 eredua onartzen dituena.*

Dagoeneko onartuta dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak eta hura garatzen duen erregelamenduak, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartuak, berrikuntzak ekarri dituzte jarduera ekonomikoen esparruan eta, hedaduraz, ordainketa zatikatuetan.

3/2014 Foru Arauaren 109. artikuluak jarraitzen du esaten ezen jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek ordainketa zatikatuak egin eta sartu behar dituztela zerga honen kontura, erregelamenduz finkatzen diren baldintzetan.

Obligazio hori zergaren erregelamendu berriko 121. artikuluan eta haren hurrengoetan dago garatuta. Haietan esaten da obligazio hori hiru hilabetean behin bete beharrekoa dela, eta ordainketa zatikatuaren aitorpena eta diru-sarrera Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitako baldintzetan, moduan eta tokian egin behar direla.

Jarduera ekonomikoen esparruan sartu den berrikuntza nagusiak ordainketa zatikatuen erregulazioan eta edukian du eragina, eta ekarri duena da zenbatespen objektiboaren araubidea jarduera ekonomikoen etekinak zehazteko metodo gisa desagertzea. Horren ondorioz, zenbatespen objektibotik ezabatu egin da ordainketa zatikatuen berariazko erregulazio guztia.

Guztiarekin ere, zergaren erregelamenduak seigarren xedapen iragankorrean aurreikusten duen araubide iragankorraren arabera, zergadunek murrizketak izan ditzakete beren ordainketa zatikatuetan, baldin eta, 2013ko zergaldian jardueren etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoaren arabera zehaztu badute, 2014ko zergaldian ere araubide hori aplikatzeko baldintzak bete badituzte –indargabetutako erregelamenduan jasotakoak–, eta 2014ko zergaldirako zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aukeratzen badute. Ordainketa zatikatuak murriztu ahal izateko, bi baldintza bete behar dira azken-aurreko urtean: titularra pertsona fisikoa izatea eta soldatapeko langilerik ez egotea.

Xedapen iragankorrak 100eko 50eko murrizketa aurreikusten du 2014ko laugarren hiruhilekoari dagokion ordainketa zatikatuan, eta 100eko 25ekoa 2015eko eta 2016ko zergaldiei dagozkienetan.

Horiek horrela, foru agindu honen xedea da 130 ereduaren edukia aldaketa horietara egokitzea.

Honenbestez, hau.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*ORDEN FORAL 635/2014, de 3 de diciembre, por la que se establecen los procedimientos de realización de los pagos fraccionados en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y se aprueban los modelos 130, de autoliquidación del pago fraccionado, y 005, de domiciliación del referido pago fraccionado.*

La reciente aprobación de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa y del Reglamento que la desarrolla, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre, comporta novedades en el ámbito de las actividades económicas y, por extensión, en materia de pagos fraccionados.

El artículo 109 de la Norma Foral 3/2014 continúa previendo que los contribuyentes que ejerzan actividades económicas estarán obligados a efectuar e ingresar pagos fraccionados a cuenta de este Impuesto, en las condiciones que reglamentariamente se determinen.

El artículo 121 y siguientes del nuevo Reglamento del Impuesto, desarrollan la obligación, especificando su carácter trimestral y especifican, además, que la declaración e ingreso correspondiente al pago fraccionado se ajustará a las condiciones, requisitos, forma y lugar que determine la diputada o el diputado foral de Hacienda y Finanzas.

La principal novedad en el ámbito de las actividades económicas, con incidencia en la regulación y en el contenido de los pagos fraccionados, se corresponde con la desaparición del régimen de estimación objetiva como método de determinación del rendimiento neto de las actividades económicas en el Impuesto, con lo que toda la regulación específica de los pagos fraccionados relativa a la estimación objetiva se ha eliminado.

Sin embargo, el régimen transitorio de la disposición transitoria sexta del Reglamento del Impuesto, establece reducciones en el importe de los pagos fraccionados para los contribuyentes que, habiendo determinado el rendimiento neto de sus actividades por el método de estimación objetiva en el periodo impositivo 2013 y que en el periodo impositivo 2014 también hubieran cumplido los requisitos previstos en el derogado Reglamento del Impuesto para poder aplicar dicho régimen, opten para el periodo impositivo 2014 por la modalidad simplificada del método de estimación directa. Para reducir los pagos fraccionados se exige que, durante el penúltimo año anterior, el titular hubiera sido una persona física y no hubiera dispuesto de personal asalariado.

La disposición transitoria prevé una reducción del 50 por 100 en el pago fraccionado correspondiente al cuarto trimestre de 2014 y una reducción del 25 por 100 para los pagos fraccionados correspondientes a los periodos impositivos 2015 y 2016.

Así pues, la presente orden foral tiene por objeto acomodar el contenido del modelo 130 a las referidas modificaciones.

En su virtud,

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

ORDAINKETA ZATIKATUAK EGITEARI BURUZKO OHAR OROKORRAK

*1. artikulua. Ordainketa zatikatuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan egiteko prozedurak.*

*Bat.* 2. artikuluan jasotakoarengatik ordainketa zatikatuak egitera behartuta dauden zergadunek prozedura hauetako bati jarraituta bete dezakete obligazio hori, izaera orokorrez eta artikulu honetako bigarren eta hirugarren apartatuetan xedatutakoa eragotzi gabe:

a) Foru agindu honen bidez onartutako 130 eredua aurkeztuz, eta dagokion zenbatekoa ordainduz.

b) Ordainketa zatikatuen helbideratze iraunkorraren bidez, foru agindu honetan onartzen den 005 eredua aurkeztuta. Zergadunaren titulartasuneko kontu batean helbideratu behar da ordainketa, eta kontuak zerga-bilketa kudeatzeko entitate laguntzaile batean egon behar du irekita.

Ordainketa zatikatuak modu iraunkorrean helbideratzea aukeratzen duten zergadunek ez dute aurkeztu behar 130 eredua horiei dagokienez.

*Bi.* Lehen apartatuan xedatutakoa gorabehera, aurreko b) letran aurreikusitako prozedura jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek erabiliko dute, soil-soilik, baldin eta ordainketa zatikatua egin baino bi urte lehenago jarduera horien etekin garbia positiboa izan bada eta, betiere, indarrean dagoen araudiak berezitzat jotzen dituen egoeretako batean ez badaude. Egoera horiek dira:

a) Jarduera hastea edo aldatzea.

b) Denboraldiko jarduerak egitea.

*Hiru.* Denboraldiko jardueretan, jarduera hasi edo aldatzen den kasuetan, ordainketa zatikatuak egin baino bi urte lehenago jarduerarik garatu ez denean edota, bestela, jarduera horien etekin garbia positiboa izan ez denean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagozkion ordainketa zatikatuak aurreko lehen apartatuko a) letran jasotako prozedurari jarraituz bakarrik egin ahal izango dira.

*2. artikulua. Ordainketa zatikatuak egitera behartuak.*

*Bat.* Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak daude behartuta ordainketa zatikatuak egitera, zerga horren konturako ordainketa gisa. Ordainketa zatikatuak hiru hilean behin egingo dira.

Obligazio horren indarrez, aipatutako zergadunek Foru Aldundian autolikidatu eta ordaindu behar dituzte urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako erregelamenduak 121. artikuluan eta haren hurrengoetan ezarritakotik ondorioztatzen diren kopuruak. Artikulu horietan xedatutakoa aplikatuta ez bada ordaintzeko zenbatekorik ateratzen, zergadunek ez dute aitorpenik aurkeztu behar.

*Bi.* Aurreko lehen apartatuko lehen paragrafoan jasotakoa gorabehera, nekazaritza, abeltzaintza edo baso jarduerak egiten dituzten zergadunek ez dute haiengatik ordainketa zatikaturik egin behar, baldin eta aurreko urte naturalean jarduerak eman dituen sarreren gutxienez %70ak atxikipena edo konturako sarrera izan badu. Kanpoan geratzen dira diru-laguntza arruntak edo kapitalekoak eta kalte-ordainak.

DISPONGO

CAPÍTULO I

ASPECTOS GENERALES DE REALIZACIÓN DE LOS PAGOS FRACCIONADOS

*Artículo 1. Procedimientos de realización de los pagos fraccionados en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.*

*Uno.* Los contribuyentes obligados a efectuar pagos fraccionados con arreglo a lo previsto en el artículo 2 siguiente,,, podrán cumplir dicha obligación, con carácter general y sin perjuicio de lo dispuesto en los apartados dos y tres de este artículo, siguiendo uno de los dos procedimientos siguientes:

a) Mediante la presentación del modelo 130, aprobado por la presente orden foral, ingresando el importe resultante del mismo.

b) Mediante la domiciliación permanente de los referidos pagos fraccionados, presentando al efecto el modelo de impreso 005 aprobado por la presente orden foral. La domiciliación deberá realizarse en una cuenta de titularidad del contribuyente, abierta en una entidad colaboradora en la gestión recaudatoria de los tributos.

Los contribuyentes que opten por la domiciliación permanente de los pagos fraccionados no deberán presentar en relación con los mismos el modelo 130.

*Dos.* No obstante lo dispuesto en el apartado uno, el procedimiento previsto en la letra b) anterior únicamente podrá ser seguido por aquellos contribuyentes que ejerzan actividades económicas cuyo rendimiento neto en el penúltimo ejercicio anterior al de los pagos fraccionados hubiera sido positivo y siempre que no se encuentren en alguna de las siguientes circunstancias calificadas como excepcionales por la normativa vigente:

a) Inicio o cambio de actividad.

b) Realización de actividades de temporada.

*Tres.* En los supuestos de actividades de temporada, o de inicio o cambio de actividad, así como cuando en el penúltimo ejercicio anterior al de los pagos fraccionados no se hubieran ejercido actividades o por las mismas el rendimiento neto no hubiera sido positivo, los pagos fraccionados en relación con el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas únicamente podrán realizarse siguiendo el procedimiento previsto en la letra a) del apartado uno anterior.

*Artículo 2. Obligados a efectuar pagos fraccionados.*

*Uno.* Están obligados a efectuar pagos fraccionados en concepto de pago a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas los contribuyentes de este Impuesto que ejerzan actividades económicas. Los pagos fraccionados se realizarán trimestralmente.

En virtud de esta obligación los citados contribuyentes deberán autoliquidar e ingresar en la Diputación Foral las cantidades que resulten de lo previsto en el artículo 121 y siguientes del Reglamento del Impuesto, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre. Si de la aplicación de lo dispuesto en los mencionados artículos no resultasen cantidades a ingresar, los contribuyentes no deberán presentar declaración.

*Dos.* No obstante lo previsto en el primer párrafo del apartado uno anterior, los contribuyentes que desarrollen actividades agrícolas, ganaderas o forestales no estarán obligados a efectuar pago fraccionado en relación con las mismas si, en el año natural anterior, al menos el 70 por 100 de los ingresos procedentes de la actividad, con excepción de las subvenciones corrientes o de capital y de las indemnizaciones, fueron objeto de retención o ingreso a cuenta.

Orobat, jarduera profesionalak egiten dituzten zergadunek ere ez dute haiengatik ordainketa zatikaturik egin behar, baldin eta aurreko urte naturalean jarduerak eman dituen sarreren gutxienez %50ak atxikipena edo konturako sarrera izan badu.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduerari hasiera ematen zaion kasuetan, kontuan hartuko da sarreren zer portzentajek izan duen atxikipena edo konturako sarrera ordainketa zatikatuari dagokion epealdian.

*Hiru.* Autolikidazioak emaitza negatiboa duenean, ez da egingo ordainketa zatikaturik.

II. KAPITULUA

ORDAINKETA ZATIKATUAK 130 EREDUAREN BIDEZ EGITEA

*3. artikulua. 130 eredua onartzea.*

Bat. Onarturik geratzen da «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatuak. Autolikidazioa» izeneko 130 eredua, foru agindu honetan I. eranskin gisa jasotzen dena.

*Bi.* Onarturik geratzen dira 130 ereduaren aitorpenek bitarteko elektronikoz eta fitxategi bidez aurkezteko bete behar dituzten diseinu logikoak, foru agindu honetan II. eranskin gisa jasotzen direnak.

*4. artikulua. Aurkezpen moduak.*

*Bat.* Honako moduak erabili daitezke 130 eredua aurkezteko:

a) Paperezko euskarria, foru agindu honen I. eranskinean jasotako diseinuaren araberakoa. Euskarriak bi ale ditu: Administrazioaren alea eta interesdunarena.

Aipatutako euskarria eskuratu ahal izango da Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://www.gfaegoitza.net) erabiltzaileen esku jarriko den PDF betegarria inprimatuta.

Azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duenak, 1. artikuluaren 1. apartatuan aipatzen dituen zergapekoek ezin dute paperezko euskarrian aurkeztu 130 eredua.

b) Transmisio elektronikoa, Internet bidezko zerbitzuen ataria, «Gipuzkoataria», erabilita. 130 ereduaren autolikidazioa elektronikoki aurkezteko, fitxategia zein formularioa erabili daiteke, gorago aipatutako 1011/2010 Foru Aginduak ezarritako prozedurari jarraituz.

Aurkezpena fitxategi bidez egiteko, transmisioa egin aurretik zergapekoak fitxategia sortu behar du foru agindu honen II. eranskinean aipatzen diren diseinu logikoen arabera.

*Bi.* 130 ereduaren fitxategia banaka zein taldeka aurkez daiteke Internet bidez. Lehen kasuan, datuak biltzen dituen artxiboak aitortzaile baten datuak jasoko ditu, eta bigarrenean, aitortzaile batenak baino gehiagorenak.

*Hiru.* Internet bidez aurkeztutako 130 ereduak aldatu, zuzendu edo baliogabetu nahi badira foru agindu honen 5. artikuluan aipatutako epea amaitu aurretik, Internet bidez egin beharko da beti.

*5. artikulua. Aurkezteko eta ordaintzeko epea.*

130 ereduaren aurkezpena eta dagokion ordainketa zatikatua hiru hilean behin egin behar dira, epe hauen barruan:

Asimismo, los contribuyentes que desarrollen actividades profesionales tampoco estarán obligados a efectuar pago fraccionado en relación con las mismas cuando, en el año natural anterior, al menos el 50 por 100 de los ingresos de la actividad fueron objeto de retención o ingreso a cuenta.

A efectos de lo dispuesto en este apartado, en caso de inicio de la actividad se tendrá en cuenta el porcentaje de ingresos que hayan sido objeto de retención o ingreso a cuenta durante el período a que se refiere el pago fraccionado.

*Tres.* No procederá efectuar pago fraccionado cuando la autoliquidación arroje resultado negativo.

CAPÍTULO II

REALIZACIÓN DE PAGOS FRACCIONADOS MEDIANTE MODELO 130

*Artículo 3. Aprobación del modelo 130.*

Uno. Se aprueba el modelo 130 «Pagos fraccionados del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Autoliquidación», que figura como anexo I de la presente orden foral.

*Dos.* Se aprueban los diseños lógicos a los que deberán ajustarse las declaraciones presentadas por medios electrónicos del modelo 130 a través de fichero, que se incluyen como anexo II de la presente orden foral.

*Artículo 4. Formas de presentación.*

*Uno.* Las formas de presentación del modelo 130 son las siguientes:

a) Soporte papel, que se deberá ajustar al diseño que figura como anexo I de la presente orden foral. El citado soporte comprende dos ejemplares: ejemplar para la Administración y ejemplar para el interesado.

El referido soporte se podrá obtener mediante la impresión del archivo PDF rellenable que se pondrá a disposición de los usuarios en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas y en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa ubicada en la dirección https://www.gfaegoitza.net.

No podrán presentar el modelo 130 en soporte papel los obligados tributarios incluidos en el apartado 1 del artículo 1 de la Orden Foral 1011/2010, de 24 de noviembre, por la que se regula la obligación de efectuar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica.

b) Transmisión electrónica a través del portal de servicios por Internet «Gipuzkoataria». La presentación electrónica de la autoliquidación del modelo 130 se podrá realizar vía fichero o vía formulario, con arreglo al procedimiento previsto en la Orden Foral 1011/2010 citada anteriormente.

Para realizar la presentación vía fichero, el obligado tributario deberá confeccionar el fichero de forma previa a la transmisión, el cual deberá estar elaborado de acuerdo con los diseños lógicos previstos en el anexo II de la presente Orden Foral.

*Dos.* La presentación del modelo 130 por Internet vía fichero podrá efectuarse de forma individual o de forma colectiva, según que el fichero correspondiente contenga los datos de un solo declarante, en el primer caso, o de varios en el segundo.

*Tres.* La modificación, rectificación o anulación de los modelos 130 presentados por Internet que se efectúe antes de la finalización del plazo a que se refiere el artículo 5 de esta orden foral, sólo se podrá efectuar por la misma vía.

*Artículo 5. Plazo de presentación e ingreso.*

La presentación del modelo 130 y el ingreso del pago fraccionado resultante deberá efectuarse trimestralmente en los siguientes plazos:

— Lehen hiruhilekoaren autolikidazioa: apirilaren 1etik maiatzaren 10era.

— Bigarren hiruhilekoaren autolikidazioa: uztailaren 1etik abuztuaren 10era.

— Hirugarren hiruhilekoaren autolikidazioa: urriaren 1etik azaroaren 10era.

— Laugarren hiruhilekoaren autolikidazioa: hurrengo urteko urtarrilaren 1etik otsailaren 10era.

Epearen azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo lehen egun baliodunera luzatuko da.

*6. artikulua. 130 eredua paperean aurkezteko eta zorra ordaintzeko tokia.*

Papera erabiliz gero, 130 ereduaren aurkezpena eta dagokion ordainketa zatikatua Zerga-bilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartuak, bilketan laguntzeko baimentzen dituen entitate laguntzaileetako batean egingo dira (banku, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatibetan).

*7. artikulua. Internet bidez aurkeztutako 130 eredua ordaintzeko era.*

*Bat.* Internet bidez aurkeztutako 130 ereduaren autolikidazioei dagozkien ordainketak bankuan helbideratuta edo ordainketa-pasabidearen bitartez egingo dira.

*Bi.* Banku batean helbideratuz gero, ordainketa kargatuko da zergadunak autolikidazioan adierazten duen kontuan, zeinak haren izenean irekita egon behar baitu zergak biltzeko baimenduta dagoen entitate laguntzaile batean. Ondorio horietarako, aplikatuko da Gipuzkoako Zerga-bilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 30. artikuluan xedatutakoa.

Eredua aurkezteko epea behin bukatutakoan kargatuko da zerga zorra helbideratze kontuan.

*Hiru.* Diru-sarrera egiteko ordainketa-pasabidea erabiltzen bada, kontuan hartuko da abenduaren 11ko 1074/2008 Foru Aginduak ezartzen duen prozedura. Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzenbide publikoko diru-sarrerak ordainketa-pasabidearen bitartez ordaintzeko era arautzen da foru agindu horretan.

Autolikidazioa ongi transmititutakoan egin ahal izango da diru-sarrera ordainketa-pasabidearen bitartez.

Ordainketa-pasabidea erabilita ere, autolikidazioak aurkezten direnean nahitaezkoa da helbideratze kontuaren datuak betetzea.

*Bost.* Zergapekoak ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskatu nahi badu Zergei buruzko martxoaren 8ko 272005 Foru Arau Orokorraren 64. artikuluan eta 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartutako Zerga-bilketa Erregelamenduaren 36. artikuluetan eta haren hurrengoetan ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora jo beharko du eskaera egiteko (https://www.gfaegoitza.net), eta bertan dagoen «Gipuzkoataria» tramite eta zerbitzu telematikoen ataria erabili.

III. KAPITULUA

ORDAINKETA ZATIKATUAK 005 EREDUAREN BIDEZ EGITEA

*8. artikulua. Ordainketa zatikatuak helbideratze iraunkor bidez ordaintzeko 005 eredua eta ordainketa-prozedura onartzea.*

— Autoliquidación del primer trimestre: del día 1 de abril al día 10 de mayo.

— Autoliquidación del segundo trimestre: del día 1 de julio al día 10 de agosto.

— Autoliquidación del tercer trimestre: del día 1 de octubre al día 10 de noviembre.

— Autoliquidación del cuarto trimestre: del día 1 de enero al día 10 de febrero del año siguiente.

Cuando el último día del plazo sea sábado o inhábil, se entenderá prorrogado al primer día hábil siguiente.

*Artículo 6. Lugar de presentación del modelo 130 en soporte papel e ingreso de la deuda.*

La presentación del modelo 130 en soporte papel, así como el ingreso del pago fraccionado se efectuará a través de alguna de las entidades autorizadas para actuar como colaboradoras en la recaudación de los tributos (Bancos, Cajas de Ahorro o Cooperativas de Crédito), en los términos previstos en el Reglamento de Recaudación, aprobado por el Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto.

*Artículo 7. Forma de ingreso del modelo 130 presentado por Internet.*

*Uno.* Los ingresos correspondientes a las autoliquidaciones del modelo 130 presentados por Internet se realizarán mediante domiciliación bancaria o a través de la Pasarela de Pagos.

*Dos.* La domiciliación bancaria se realizará con cargo a una cuenta de titularidad del contribuyente, abierta en una entidad colaboradora en la gestión recaudatoria de los tributos que indique el contribuyente en la autoliquidación presentada. A tales efectos será de aplicación lo dispuesto en el artículo 30 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto.

El cargo en la cuenta de domiciliación de la deuda tributaria se efectuará a la finalización del correspondiente periodo de presentación del modelo.

*Tres.* El ingreso a través de la Pasarela de Pagos se realizará con arreglo al procedimiento previsto en la Orden Foral 1074/2008, de 11 de diciembre, por la que se regula el pago de ingresos de derecho público de la Diputación Foral de Gipuzkoa a través de la Pasarela de Pagos.

El ingreso a través de la Pasarela de Pagos se podrá efectuar una vez se haya transmitido válidamente la autoliquidación correspondiente.

Sin perjuicio de la posible utilización de la Pasarela de Pagos, al presentar las autoliquidaciones es obligatorio cumplimentar los datos de la cuenta de domiciliación bancaria.

*Cinco.* Cuando el obligado tributario pretenda solicitar el aplazamiento o fraccionamiento del pago previstos en el artículo 64 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria, y en el artículo 36 y siguientes del Reglamento de Recaudación, aprobado por el Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, deberá realizar la solicitud a través del portal de trámites y servicios telemáticos «Gipuzkoataria», ubicado en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

CAPÍTULO III

REALIZACIÓN DE PAGOS FRACCIONADOS MEDIANTE MODELO 005

*Artículo 8. Aprobación del modelo 005 y contenido del procedimiento de realización de los pagos fraccionados mediante domiciliación permanente.*



EK\CV GAO-I-2014-11040

*Bat.* Onarturik geratzen da «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek egiten dituzten jarduera ekonomikoen ordainketa zatikatuaren helbideratze iraunkorra» izeneko 005 eredua, foru agindu honetan III. eranskin gisa jasotzen dena.

*Bi.*

1. Ordainketa zatikatuen helbideratze iraunkorra aukeratzen duten zergadunek alta eskaera aurkeztu behar diote Ogasun eta Finantza Departamentuari, aurreko lehen apartatuan onartutako 005 eredua dela medio.

2. Ordainketa zatikatuen helbideratze iraunkorra 005 ereduaren bidez behin eskatuta, Ogasun eta Finantza Departamentuak egiaztatuko du eskaera aurkeztu duen zergadunak bete egiten dituela foru agindu honetan aipatu diren baldintzak ordainketa zatikatuen prozedurarekin aurrera jarraitzeko.

Zergadunak ez baditu baldintza horiek betetzen, helbideratze iraunkorraren eskaera errefusatu egingo da, eta zergadunari hala jakinaraziko zaio eskaera jaso eta hilabeteko epean.

Aipatutako epea igaro eta zergadunari ez bazaio jakinarazi helbideratze iraunkorraren eskaera errefusatu zaionik, zergadunak tazituki onartutzat har dezake bere eskaera.

3. Eskaera onartutakoan, honela jokatuko du Ogasun eta Finantza Departamentuak:

1.ª Bere esku dituen datuak erabilita, egiaztatu egingo du zergadunak ereduaren laukian ordainketa zatikatu gisa adierazi duen zenbatekoa zuzena dela, hau da, bat datorrela legez aurreikusitako zenbatekoarekin.

2.ª Zergadunak aukeratu duen ordainketa zatikatua legez aurreikusitakoa baino handiagoa denean, egiaztatuko du zenbateko horrek benetan gainditzen duela indarrean dagoen araudian ezarritakoa.

3.ª Eredua aurkezten den ekitaldian, hiru hilean behin eta aurreko 7. artikuluko 2. apartatuan ezarritako daten barruan, zergadunak adierazitako ordainketa zatikatuaren zenbatekoa kargatuko da, propio aukeratutako kontuan.

4.ª Hurrengo ekitaldietan, eta zergadunak baja hartzeko eskaerarik aurkezten ez duen artean, legez aurreikusitako ordainketa zatikatuaren zenbatekoa kargatuko da zergadunak aukeratutako kontuan, aurreko 3. zenbakian adierazitako epeetan.

5.ª Ordainketa zatikatuaren helbideratze iraunkorra eskatzeko unean zergadunak aukeratu badu legez aurreikusitako zenbatekoa kargatzea kontuan, eta, geroago, nahiago badu ekitaldian zenbateko handiagoa kargatzea, bidezko komunikazioa helarazi behar dio Ogasun eta Finantza Departamentuari 005 eredua dela medio.

Orobat, ordainketa zatikatuaren helbideratze iraunkorra eskatzeko unean zergadunak aukeratu badu legez aurreikusitakoa baino zenbateko handiagoa kargatzea kontuan, eta, geroago, nahiago badu kontuan indarrean dagoen arauditik ondorioztatzen den zenbatekoa kargatzea, Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinarazi beharko dio 005 eredua aurkeztuta.

Komunikazio horiek eragina izan dezaten dagokion hiruhilekoan eta hurrengoetan, foru agindu honen 10. artikuluan aurreikusitako epe berberetan aurkeztu behar da 005 eredua.

6.ª Zenbatekoa kontuan kargatutakoan, finantza entitate laguntzaileak ordainketa zatikatua egin izanaren frogagiria bidaliko dio zergadunari, gutxienez honako datuok adierazita:

*Uno.* Se aprueba el modelo 005 «Domiciliación permanente del pago fraccionado por los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que ejercen actividades económicas», que figura como anexo III de la presente orden foral.

*Dos.*

1. Los contribuyentes que opten por la domiciliación permanente de los pagos fraccionados deberán dirigir la oportuna solicitud de alta al Departamento de Hacienda y Finanzas mediante la presentación del modelo 005 aprobado en el apartado uno anterior.

2. Solicitada la domiciliación permanente de los pagos fraccionados mediante la presentación del modelo 005, el Departamento de Hacienda y Finanzas comprobará que el contribuyente que ha efectuado la misma reúne los requisitos anteriormente referidos en la presente orden foral para poder seguir dicho procedimiento de realización de los pagos fraccionados.

En caso de que el contribuyente no reúna dichos requisitos, la solicitud de domiciliación permanente será rechazada, notificándoselo así al contribuyente en el plazo de un mes a contar desde la recepción de dicha solicitud.

Transcurrido el referido plazo sin que se notifique al contribuyente el rechazo de su solicitud de domiciliación permanente, éste podrá entenderla tácitamente admitida.

3. Una vez admitida la solicitud, el Departamento de Hacienda y Finanzas procederá del siguiente modo:

1.º Comprobará, con los datos obrantes en su poder, que el importe del pago fraccionado consignado por el contribuyente en la casilla correspondiente del modelo es correcto, es decir, que asciende a la cantidad prevista legalmente.

2.º En el supuesto de que el contribuyente haya optado por un pago fraccionado superior a la cantidad legalmente prevista, comprobará que dicha cantidad es efectivamente superior a la establecida en la normativa vigente.

3.º En el ejercicio en el que se presente dicho modelo, trimestralmente, en las fechas previstas en el apartado dos del artículo 7.Dos anterior, se cargará el importe del pago fraccionado consignado por el contribuyente en la cuenta bancaria designada al efecto.

4.º En los ejercicios posteriores y en tanto no se presente comunicación de baja por el contribuyente, se cargará en la cuenta designada por el mismo y en los plazos indicados en el número 3.º anterior, el importe del pago fraccionado previsto legalmente.

5.º En el supuesto de que habiendo optado el contribuyente en el momento de solicitar la domiciliación permanente del pago fraccionado por que se le cargase en cuenta el importe previsto legalmente y desee posteriormente que durante el ejercicio se le cargue un importe superior, deberá comunicarlo al Departamento de Hacienda y Finanzas mediante la presentación del modelo 005.

Igualmente, en el supuesto de que habiendo optado en el momento de solicitar la domiciliación permanente del pago fraccionado por que se le cargase en cuenta un importe superior al previsto legalmente y desee posteriormente que se le cargue en cuenta el importe resultante de la normativa vigente, deberá comunicarlo al Departamento de Hacienda y Finanzas mediante la presentación del modelo 005.

Para que dichas comunicaciones surtan efecto en el trimestre correspondiente y siguientes, el modelo 005 deberá presentarse en los mismos plazos previstos en el artículo 10 de la presente orden foral.

6.º Efectuado el cargo en cuenta, la entidad financiera colaboradora remitirá al contribuyente el correspondiente recibo justificante de la realización del pago fraccionado en el que constarán, como mínimo, los siguientes datos:

EK\CV GAO-I-2014-11040

— Ekitaldia.

— Hiruhilekoa.

— Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa.

4. Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa kontuan kargatzea ordainketa zatikatuaren autolikidaziotzat hartuko da ondorio guztietarako.

5. Ordainketa ezin bada kontuan kargatu saldo nahikoa ez izateagatik edo Gipuzkoako Foru Aldundiari egotzi ezin zaion beste edozein arrazoirengatik, ulertuko da ordainketa zatikatuaren autolikidazioa aurkeztu eta ordaindu gabe dagoela.

6. Zergadunak helbideratze iraunkorraren kontua aldatu nahi badu, ordainketa zatikatuen helbideratze iraunkorra erabiltzeari utzi nahi badio, edo jarduera aldatu badu, bidezko komunikazioa helarazi behar dio Ogasun eta Finantza Departamentuari 005 eredua dela medio.

Komunikazio horrek eragina izan dezan dagokion hiruhilekoan eta hurrengoetan, foru agindu honen 10. artikuluan aurreikusitako epe berberetan aurkeztu behar da 005 eredua.

7. Ogasun eta Finantza Departamentuko Zuzeneko Zergak Kudeatzeko Zerbitzuaren mende dagoen «Helbideratze Iraunkorren Erroldak» gertatu diren altak, aldaketak eta bajak jasoko ditu, eta haren bitartez posible izango da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek modu iraunkorrean helbideratutako ordainketa zatikatuen segimendua egitea.

*9. artikulua. 005 eredua aurkezteko moduak.*

Honako moduak erabili daitezke 005 eredua aurkezteko:

a) Paperezko euskarria, foru agindu honen III. eranskinean jasotako diseinuaren araberakoa. Euskarriak bi ale ditu: Administrazioaren alea eta interesdunarena.

Aipatutako euskarria eskuratu ahal izango da Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://www.gfaegoitza.net) erabiltzaileen esku jarriko den PDF betegarria inprimatuta.

Azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak 1. artikuluaren 1. apartatuan aipatzen dituen zergapekoek ezin dute paperezko euskarrian aurkeztu 005 eredua.

b) Internet bidezko transmisio elektronikoa, «Gipuzkoataria» zerbitzuen ataria erabilita. 005 eredua bide elektronikoz aurkezteko, aurreko a) letran aipatutako FDF betegarria bete eta transmititu behar da elektronikoki.

005 eredua Internet bidez aurkezteko, lehen aipatutako azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduan ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio.

